

MAHAI INGURUA BILBON (1984-V-23)

Alfonso Irigoien

Bilboko Aurrezki Kutxak Euskaltzaindiko zenbaiti dei egin digularik “Euskarakiko gaurko ekintza eta gerorako asmo”-en gainean hitz egin behar omen dugu. Zehatz esaten ez bada ere, programa irakurririk edozeinek normalki pentsatuko luke Euskaltzaindiaren ekintzez jardun behar dugula, baina berez berdin izan liteke Euskal Herria orokorki harturik hitz egitea, azken finean euskararen motorra euskaldun ororen artean eraginik aurkitzen ez baldin bada, edozein koloreko direla, alperrik baita Euskaltzaindian aurki dadin nahi izatea eta mirakuluren baten zain gelditzea.

Edozein modutan ere argi dago ni ez naizela hona Euskaltzaindiaren apologia egitera etorri, baina ezta kritikarik ere. Hori zuei dagokizue.

Euskaltzaindiaren zeregin nagusia, gure artean behar beharrezkoa dena, ingelesten artean horrela ez bada ere, eta Akademiarik batere behar ez badute ere bere hizkuntzak munduan zehar nahikoa hedadura handia izan dezan, Euskaltzaindiaren zeregin nagusia, diot, gure hizkuntzaren erabileraz normak ematea da, eta hori da hain zuzen ere bere existentzia justifikatzen duen ardatz nagusia, jagon saila hastape-netik bertatik ezinbestean sortu bazitzaion ere, azken finean jagon saila, gure artean ulertzen den bezala, hau da, Euskararen bizirik irautea bera zaintzea, Estatuari baitagokio. Agian hori ere egunen batean zeharo bere bidera etorriko dela espero izan dezagun, lehenago teilagin-tejeroak eta miru-milanoak, nolabait eta ahal izan den era-ara jartzen hasirik dauden zimendu berriak desegiten saiatzen ez baldin badira.

Arlo honetan Euskaltzaindiak zerbait egin du gerra ondoko urteetan hasirik:

Lehenengo planteatu zen problema oso sinplea izan zen, baina axola handikoa. 1959-garren urtean, hain zuzen ere hemen, Bilbon bertan, Diputazioaren Bibliotekan, Euskalzaleen Biltzarra izan ondoan adirazpen bat zabaldu zuen euskal hitzak zein diren definizioa eginik. Gaur askori harrigarria iruditzen bazaio ere beharrezkoa zen hori egitea, eta **zeru** hitza erabili behar zela eta ez **donoki**, **eliza** eta ez **txadon**, esatea, mitoa deseginik, hau da, euskal hitza zein den usuarioak markatzen duela finkatzea, zenbat eta zaharrago, hedatuago eta sustraituago izan, hainbat eta erabilgarriago dela oinarritzat hartzea, duen jatorria alderdi batera utzirik. Halakoak, noski, bide horretarik abiatuz gero, ez lirakeke erdal hitzak, erdaratikoak baizik. Beraz euskararenak (1).

(1) Mahai inguruan esanikakoari ohar hau eransten diot. 1956-garren urtean neuronek nuen Aita Berriatua-k sorturikako **Anaitasuna** aldizkaria ateratzeko ardura osoa, eta hiru aletan **Euskalzaleen txokoa**

Adierazpen horrek bere denboran hautsak astindu zituen bazterretan, eta geroago burruka hatxistikoak sortu zituen adina esames ekarri zituen, orain ahaztuxerik gelditu badira ere. Egia esateko, geroago hatxearen inguruan sortu ziren eztabaidek ahaztu eragin zituzten aurrekoak, eztabaidotan beretan praktika bestelakoa bilakatu baitzen, bestela ezin baitzitekeen, harriak berantz erortzen baitira, gorantz erortzen direla esan nahi bagendu ere. Artean iragana zen Krutwig-ek Lapurdiko euskara klasikoan, hori ere Bilbon bertan, Aita Luis Villasante Euskaltzaindian sartzerako hitzaldiari egin zion erantzuneko garai hura. Ene ustez adierazpen simple horrek posible bihurtu zuen gure hizkuntzak geroago ezagutu duen eta oraindik ari izanik garatzen duen bidea, purismoaren mugak estuak apurturik gelditu baitziren. Alderdi horretarik axola handikotzat har daitekeela uste dut.

Gero 1968-garrenean Arantzazuko bigarren Biltzarra egin zen, —lehenengoa 1956-garrenean izan zen Euskaltzaindia, frankismoaren denbora bereko giro bihurri eta itogarri hartan, jendartera modu zabalago batez nolabait agertu zenekoa—, eta han euskara batuaren problematikari adarretarik eusten hasi zitzaion, harako arrazoi biologiko famatuak ere aipatu zirela, jende gazteagoa, Krutwig lehenago bezala, ha-

(**aberastu zure iztegia ta konzeptuak**) zeritzana neure eskuz bete nuen, hain zuzen ere orduan korritzen zuen ohitura bat zuzentzeko asmoz. Ohitura horren arauera esan nahiaren aldetik berdintsu —baina ez zeharo berdín—, ziren hitz pare askotan bakoitzak zuen ñabardura bereziaren kontra jokatzeko, erdaratikakoa zena zeharo baztertearen bitartez besteari, —ustez garbia zenari—, ematen baizitzaion bakarka indar osoa. Arrazoi horregatik **oben** eta **pekatu** ez zirela bat adierazten nuen, **mirari** eta **milagro** ere bat ez ziren bezala, ez **santu** / **saindu** eta **guren**, —gogoratu Orixeren **Agustiñ gurenaren aitorkizunak**, Zarauz 1956—, ezta **apostolu**, **mandatari** eta **bidali** era —gogora ekarri Zaitegi-ren **Bidalien egiñak** liburua—, ezta **abade**, **fraille** eta **sazerdote** ere.

Honela dio **oben** eta **pekatu** hitzei dagokienak: “Erlojuak obenak egiten ditu. Kristiñauak pekatuak. Pekatua egiteko borondatea bear da; obenak egiteko ez”.

Apostolu eta abarri dagokiona: “**Apostolua**, **mandataria** ta **bidalia** ez dira bat. Apostolua amabi dira, Jesukristo-k bidaliak, Jesukristoren mandataria. Bidali bat ezta iñok bidaltzen, mandataria bat baiño. Jesukristo-k bere mandataria bidali euskuzan bere mandatu miragarriagaz: evangelioagaz. Mandataria apostolua dira. **Apostolu** izenak, gero, bere zentzuna zabalago egin dau, eta apostolua erlegiñoaren alde fede aundiagaz lan egiten dauenari be esaten jako, eta edozein metaforatan erabili leiteke, itz guztiak lez. Adibidez: “Mogimentu orren apostolua...” Esakuntza onetako **apostolu** itza eztagoko Jainkoaren mandataria, ezta erlegiñoaren alde lan egiten dauenari be; irudi bat baiño ezta”.

Eta abar, ikus **Anaitasuna**, n.º 32, martia-aprila-maiatza 1956, n.º 33, bagilla-garagarrilla 1956, n.º 34, agostua-iraila, 1956.

Egia esateko Larramendi-ren 1745garren urteko hiztegi hirueldunean agertzen da **mirari** hitza, honela: “**Milagro**, **mirá**, **miraria**, **milagroa**”, eta ‘mirakulu’ zentzuan Lardizabal bere gramatika jarraitzaileak ere erabili izan du joan den mendean **Testamentu zarreo eta berriko condaira edo historia** liburu 1855-garren urtean lehenengo aldiz argitara zenean, —Azkue-ren hiztegian Mogel-en **Peru Abarka** aipatzen da, 46 orr., 14 lerr., ‘prodigio, milagro’ itzulirik—: **Jaincoaren escuetatic artutaco mesede miraritsuac**, bigarren ediz., 123 orr., **Moises-ec**, **bada aimbeste mirari egiñdaco maquilla Cucha santaren ondotic arturice**, **aurrean ceucan arrian bi aldiz jo zuen**, ..., id. 110 orr.

Azkue-k, bere joeraren arauera, ez du Larramendi aipatzen, Mogel baizik, eta gainera itzulpenean ‘prodigio’ zentzu zabalagoa ere ipintzen du. Honela dio Peru Abarka-k: **Ac uste dau eztaguala bea leguezo Barberuric Bizcal guztijan: bein banaan ateraco deusuz egiñ dituban osaquinta mirariraño jó eragitecuac**, 46 orr.

Itzaldekoen artean normalki korritzen duen **mirakulu** forma mundu kristauan duen zentzu zehatze-rako Euskal Herri osora hedatu ezinik ez dago. Horrela **mirari** erabiltzerakoan **mira egin**, **miraritu**, **miratsi**, **miragarri** eta halakoetan duen zentzu zabalagoan murgil liteke, erdaraz ‘cosa admirable’.

Beste alde batetik **sazerdote** hitza normalki agertzen da, esaterako, Olaetxeren Bizkaiko dotriñan, XVIII-garren mendean zabaltzen hasi zen hartan: **Noc ofrecietan dau Sacrificio au? Jesu-Cristo gucure Erredentoreac Sacerdoteagaz batera, eta ...**, 117 orr.

txe zalea bilakatzen hasirik agertzen baitzen, euskararen batasuna bide horretarik abiarazteko asmoz.

Horren ondorik aditz batuarena bi txandatan egin zen eta berez esamesen alde-
tik, erabaki zailagoa baitzen, hatxearenak baino gehiago ekarri behar zituzkeen, teo-
riaz behintzat, baina nahikoa mantso joan zen dena.

Hamar urte geroago Bergara-koa egin zen eta handik atera ziren euskal erakus-
leen finkatzea, deklinabidearena, busti palatalen grafiaren kontua eta hain zuzen ere
hatxearena zehazki zein hitzetan erabili behar zenarena, zeren Arantzazu-koa
gomendiozkoa besterik izan ez baitzen, nahiz eta praktikan azkenengo mutur eta
ondorioetaraino eraman izan zen inola bultzatu behar izan gabe ere.

Orain maileguzko hitzekin gabiltza: Euskaraz hitz berriak maileguan hartzeko
premia legokeenean nola har litezkeen, eta jadanik zenbait erabaki harturik badaude
ere, oraindik beste batzu falta dira, eta amaitu bezain laster emango dira argitara.
Jakina, hemen esan beharra dago, begien bistakoa bada ere, gu Europako herri bat
garela, eta Europa-ko kulturaren erroak Grezian ditugula, gure artera latinaren bidez
hedatu badira ere, eta guk ere hor parte hartzen dugula.

Gogora ekarri nahi nuke, hain zuzen ere, Arzallus-i, gaur bertako **Deia**-n irakur
daitekeenez, "el Loco de la colina" erradioko lokutoreak gaueko emisio batean galde-
tu berri diona: "El euskera es un idioma muy limitado? ¿Puede escribirse sobre eco-
nomía o sobre filosofía en euskera?", behin Suarez Espainiako gobernu presidente
ohiak, konturatu gabe eta publikoki ager zedin nahi ez zuela, abioian aidean hegan
zihoanean adierazi zuen gisara. Nik neuk itauna alderantziz egingo nuke: eta gaztela-
nia gauza ote da gai horiezaz berezaz idazteko Greziako iturrietara jo gabe, eta, jaki-
na, Greziako hitzetara, latinaren bidez iraganik? Eta haiek ezinbestez, eta gainera
dotoreziaz, hori egiten baldin badute zein legek galerazten digu guri iturri komun
berean edateko eta dotorezia berdinez erabiltzeko?

Gaztelaniaz, esate, baterako, mundu guztiak ezagutzen du **dosis** hitza: **Ha
muerto de una dosis excesiva de heroína**, edo **de una sobredosis**, maiz irakurtzen
denez berrikitan hedatzen hasi den droga mundu erotu horren inguruan. Baina **dosis**
hitz grekoa besterik ez da, medikuek zabaldu dutena, nahi ta nahiez aspaldidanik
Unibertsitate munduan mugitu behar izan baitute, enplastero huts izan nahi ez baldin
bazuten, eta azken finean **enplasto** hitza bera ere grekotikoa da: latinez **emplastrum**,
-i, grekozko **έμπλαstron**, **ou**, eta bada **emplastón**, **-ou**, aldaera ere.

Hitz bakoitzak bere historia eta ingurua du eta gu ezin geldi gaitezke historia
horretarik bazterturik, gure hizkuntza zeharo desager dadin nahi ez baldin badugu.
Hori berori egin dute Europako hizkuntzarik nagusienek, alemana eta ingelesa leku-
ko, nahiz eta hizkuntza germanikoen kasuan haiek latinean eta grekoan iturririk ez
duten, indoeuropeoak badira ere, eta izan ere hizkuntza klasikoek ikertzea guk ere,
haiek bezala, berdin berdin dugu beharrezkoa. Horrek ez du esan nahi geure iturri
bereziak ere begiratu behar ez ditugunik, hori, jakina, ahal denik eta sakonen ikertu
behar baitugu.

Eta honekin bete dut nire txandari eskaini zaion denbora.

(Mahai inguruan parte hartu zutenak:
nizaz landara,
J.Haritschelhar,
J. San Martin,
J. M.^a Satrustegi,
E. Knörr-ek moderatzaile egin zuela)